

EGUNKARIAN
24 ABRIL 1994

Gernika Batzorde-ko partaidea

Fidel Arejita

Etzi beteko dira 57 urte alemaniarrek Gernika suntsitu zutenetik. Gernika Batzordeak ekitaldi sorta antolatu du egunotan; atzo bertan, alemaniarrek Frantzian hondatu zuten Oradour Sur Glanen elkartasun ekitaldia egin zuten. Gaur zazpi

margolari ezagunek Picassoren 'Guernica' ezagunaren bertsio askea margotuko dute herriko plazan. Fidel Arejitak Gernika Batzordearen jarduna eta elkarte honek autodeterminazioaz eta bakeaz daukan ikuspegia azaldu du elkarrizketa honetan.



«Ezin daiteke Gernikako sarraskia ahaztu»

Elkartasun ekitaldi bat egin zuten atzo Frantziako Oradour Sur Glane herrian

INAKI URIARTE / BILBO

EGUNKARIA.— Herria bonbardatu zutenetik 57 urte igaro dira eta Gernikaren memoria erreibindikatzen segitzen du Gernika Batzordeak.

FIDEL AREJITA.— Bonbardaketa kristoren drama izan zen, sekula holakorik gertatu barik, bat-batean gerrako makineria izugarri batez herri oso bat era horretan hondatzea ikaratzekoa izango zen. Ez dago hilen datu zehatzik, baina batzuek diote bostehunetik gora izan zirela; beste batzuek, berriz, zortziehunetik gora izan zirela esaten dute. Bonbardaketaren garai hartan zeuden makinarik moderno eta potenteenak erabili zituzten.

Ezin daiteke ahaztu holako sarraski bat denbora iragan delako. Gauza batzuk barkatu egin daitezke, baina ahaztu ez. Faxismoa oraindik bizirik dago mundu guztian zehar, eta ahaztu ez dadin Gernikaren oroimena erreibindikatu behar dugu. Gainera, badaude beste gauza batzuk ahaztu ezin ditugunak 'Gernika' koadroa Gernikara ekartzea adibidez.

EGUNKARIA.— Egunotan hainbat ekitaldi egiten ari zarete 57. urteurrena oroitzeko; besteak beste, atzo bertan Oradour Sur Glane herrira joan zineten.

AREJITA.— Oradourren berri izan genuen iaz. Bertara joanda hango alkatearekin eta senitarteen elkartearekin lehendakariarekin hitz egin genuen eta oso ondo ikusi zuten gure ideia eta prest agertu ziren laguntzeko.

1944ko ekainaren 10ean alemanak herrira sartu ziren, jende guztia bildu zuten plazan, eta gero gizonetakoak 50 edo 60ko taldetan korta eta biltegietan sartu zituzten; andreak eta umeak bertako elizan. Holako batean bolandera edo antzeko zerbitu bota zuten eta orduan jendea metrailatzen hasi ziren gerritik behera; gero gainera egurrak bota eta sua eman zieten, jendea bertan bizirik erretzeko. Batzuek alde egitea lortu zuten, eta beraietako batek zuzenean kontaktu zigun han gertatu zena.

Emakume eta umeekin gauza bera gertatu zen, metrailatu eta



'Guernica' koadroa Gernikara ekartzeko eskatu du Arejitak. X. SIMAL

Gatazkaren buru diren bi aldeek berba egin behar dute, eta horrek ez du esan gura herri erakundeek eta alderdiek zeresanik ez dutenik, denok dugu zeresanik horretan.

gero fosforozko bonbak bota eta erre egin baitzituzten. Landa bat dago geratu zen moduan oraindik, izugarria da. De Gaullek belaualdi oso baterako dolumina ezarri zuen. Herri zaharra han dago, alemanek utzi zuten bezala, ez dute ezer ikutu; auto zaharrak eta guzti han daude, eta herri horren ondoan beste bat eraiki zuten. Testigantza hori hor dago, ezabatu barik, Gernikan gertatu ez dena.

EGUNKARIA.— Nolakoa izan zen Oradourreko ekitaldia?
AREJITA.— Alkatea eta herriko jendea egon zen zain. Gero han badago oroitarri bat eta jendeak eramandako oroigarriak; guk ere harri eta egurrezko estela txiki bat eraman genuen. Laster izango da beraien 50. urteurrena eta ordurako ere eraman genituen beste oroigarri batzuk, Amurizaren bertsio batzuk eta lauki bat.
EGUNKARIA.— Aste honetan

beste zenbait ekitaldi ere egin dituzue, eta gaurko ere badaude gauzak, ezta?

AREJITA.— Gaur 'Gernika' Gernikarako erreibindikatuz, 'Gernika' neurriko beste bat margotuko dute zazpi margolarik. Bertan izango dira Zumeta, Morras, Iparaldeko Gelos, Lazkano, Tamaio, eta gernikar bi: Eduardo Gordo eta Jonan Berasaluze. 'Gernika' koadroko motibo esanguratsuenak hartuta, interpretazio aske bat egingo dute. Ekitaldi hau udaletxeko plazan izango da.

Koadroa oholean egingo da eta gorde egingo dugu hurrengo batzuetan erabiltzeko edo, eskatzen badigute, beste toki batzuetan erakusteko. Bitartean, trititilari eta bertsolariak izango dira. Aspaldian Txiplasek —Xabier Arriaga— idatzitako bertsoak ere banatuko ditugu idatziz deon artean kantatu ahal izateko.

Asteartean urteurrena denez, mahainguru bat antolatu dugu 'Autodeterminazioa bakerako bide?' izenekoa. Bakearen Aldeko Koordinakundea, Elkarki, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Bakea Orain eta Herria 2000 Eliza gonbidatu ditugu bakoitzak bere iritzia eman dezan. Horren ostean manifestaldi txiki bat egingo dugu herrian zehar kandeekin.

EGUNKARIA.— Bakearen gaia aipatu duzu. Zuek izan zarete beste zortzi talderekin batera Arantzazutik Maroñora bitarteko bidea egin duzuenak. Zelan ikusten duzu egindakoa eta aurrera begirako elkarlana?

AREJITA.— Guk aldeko balorazioa egiten dugu. Lehenago BAK, Bakea Orain eta holako taldeak itxita zeuden gurekin hitz egiteko, nahiz eta guk beti izan dugun beraiek gonbidatzeko jarrerara. Duela hiru urte gonbidatu genituen mahainguru batera; duela urte bi andaluziarrak Gernikan egon zirenean ere deitu genituen. Elkarrizketa honen ondorioz argi ikusi dugu biolentziaren irtenbidea elkarrizketaren bidez lortu behar dela, eta horretan denok bat etorri ginen.

Lehenengo erronda eginda, nahiko nekatuta amaitu genuen;



Autodeterminazioa nahitaetzko puntua da elkarrizketa mahaian.

orain asmoa dago idatzitako materialarekin liburu bat argitaratzeko. Hori egin ondoren, beste ekitaldi batean parte hartu beharko genuke, irtenbide posible batzuen ardatzak jartzeko. Dena den, momentuz ez da zehaztu horretan jarraituko dugun ala ez.

EGUNKARIA.— Gernika Batzordearen iritziz zein eduki eta marko izan beharko luke elkarrizketa horrek

AREJITA.— Autodeterminazioa da nahitaetzko puntu bat. Ez du balio berba egiteak edukirik ez badago. Mahai horretan edozein edukiz eztabaidatu beharko litzateke. Autodeterminazioaren barruan beste puntu pilo bat sartuko genuke, euskara, gure kultura izateko eskubidea eta abar.

Elkarrizketa horren partaidea izan beharko lukete gatazkaren buru direnek. Hor badago estatu bat, herri honetan biolentzia ezartzen duena, eta estatu horri armen bidez erantzuten dion indar bat. Horiek biek izan behar dute berba egin behar dutenak. Horrek ez du esan gura herri erakundeek zein alderdiek ezer esateko ez dutenik, denok baitugu zeresanik horretan.

EGUNKARIA.— Zein ekitaldi egin duzue aurten?

AREJITA.— Nahiko lan izan dugu aurten Maroñokoarekin, lanordu eta idatzi asko erabili behar izan ditugu eta.

Bestalde, SOS Balkanes elkarteak esan zituzten gudaren bigarren urtea datorela eta zerbitu egin nahiko luketela. Manifestua eta ekitaldi sinboliko bat egin genituen Bosniaren aurka eraso egiteari aski dela esanez. Sarajevoko eztabaida eta gero bazi-rudien gatazka konpontzera zihoazela, eta gero ikusi duzu zer gertatzen ari den Mostarren, Gorraden eta abarretan. Jendea guda hau ez dela amaitu ohartarazi genuen.